

Kattagorriak

Mirari Martiarena

Kattagorri izateko gonbidapena jaso nuen espetxetik igorri zidaten gutun batean. Elkarrekin egoteko modu bakarra hori zelako eta delako zoritxarrez. Kattagorri bihurtzen naiz bizitzako momentu esanguratsuenetan, baita eguneroko momentu xumeenetan ere. Beti izaten dut gogoan bera eta gure kattagorri izaera. Poz handienetan elkartzen garenean saltoka ibiltzen gara, adarretik adarrera dagoen distantzia zein den konturatu gabe. Zentimetroak, metroak edo kilometroak diren ez du inportatzen. Ez dago mugarik. Mina dugunean, berriaz, elkar besarkatuta egoten gara, elkarri babesa eta goxotasuna emanaz. Negar egin behar badugu negar eginez eta irri

egin behar badugu irri eginez. Hustutako ezkur azalak aprobetxatzen ditugu garga-gardoak bete eta topa egiteko. Hilabete honetan, adibidez, festa eguna dugu irailaren 16an, bere urtebetetzea ospatuko dugulako. Gutun bateko gonbidapen horretatik hasi zen guztia. Berri Txarrak taldearen “Iraila” abestiak dioen bezala «hitzak urtarotatik batetik bestera bidaltzen genituen», eta oraindik ere horretan dihardugu. Gutun bakoitzean sortzen ditugu besarkada eta muxu berriak. Izan daitezke lore sortetan bildutakoak udaberrian, ihintz usaineko besarkada freskoak udan, ilunabar arroketako muxu beroak udazkenean edo Aiako Harrietako elur bota berriaren za-

porekoak neguan. Urtaroka bada ere, elkar hitz berritzen eta bizi berritzen dugu. Irudimena eta maitasuna lotuz gero inoiz pentsatu gabeak lortu eta egin daitezke. Iristeko hilabete pasatzen dute hitzek gutxi gorabehera. Baina berdin du, sentimenduak ez baitira hiltzen tarte horretan. Kattagorri bat ikusten dudanean badakit hitzak iritsi direla edo badatozela. Gauza asko bururatzen zaizkit baina nire eguneroko burutapenak izaten dira. Benetan sentitzen direnak. Eta benetan sentitzen direlako jarraituko dut horrelakoak pentsatzen eta igortzen. Kattagorri izateari uzten ez diodan bitartean jarraituko dut ezkur azalekin egindako kopetan topa egin eta “Zorionak zuri” kantatzen. •

Beldurra

Koldo Sagasti

Beldurra izango zen, seguruenik, 4.000 haurren gurasoak euren kumeak “Habana” itsasontzian bidaltzera bultzatu zituen. 1937. urtea zen eta, gerraren ikaraz, milaka euskaldunek umeak Santurtzitik Britania Handira ontziratzeko erabaki latza hartu behar izan zuten, bertan aterpea bilatuko zutelakoan. Eta Gobernuarena ez, baina gizarte britainiarraren babesa bai, jaso zuten. 1948an gudaroste sionistek Deir Yasin herrian egindako sarraski ankerra akuilu izan zen ia milioi bat palestinarrek erbestealde egiteko, beldurraren beldurrez. Miseria, gosetea eta gerratearen beldurrez saiatzen dira milaka lagun Melillako

hesi zorrotzak zeharkatzen. Eta Mendebaldeko estatuen esku-hartzeak Ekialde Hurbileko eta Ipar Afrikako zenbait herrialdetan eragindako gerra egoeraren beldurrez egiten dute ihes milaka eta milaka lagunek lasterketa etsi eta zoro batean. Bestalde, Mendebaldeko agintariak eta hedabide hegemonikoak ere errefuxiatuen aurkako beldurra elikatzen dute. Lana lapurtzera eta gure gizarte zerbitzuen kontura bizitzera datozela diote, asmo txarrez, gure gizarte eredu kolokan jartzera nonbait. Eta beldurraren diskurtsoak etekinak eman ditu. Ikusi besterik ez dago Javier Maroto edo Xavier Garcia Albiol bezalako pertsonaiek arrazakeriaren mamua

astinduz euren ibilbide profesionaletan izandako gorakada. Beldurra oparitzen digute, eskubide zibil eta politikoetan ezarriko dizkiguten murrizketak errazago irents ditzagun. Baina beldurraren estrategia porrotera kondenatuta dago, izan ere, ezin dira alderatu pribilegioak arriskuan ikusten dituztenen beldurra eta heriotzatik ihesian datozenena. Bizirauteko grina beti gailenduko zaio pribilegiatuen ezinegonari. Horregatik, alferrik ari dira landari hesiak jartzen. Izan gaitetzen zentzudun. Garai batean “Habana” ontziko hurrek jaso zuten abegikortasuna ematea guri dagokigu orain. Izan gaitetzen haientzako aterpe. •